

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Museoak bisita gidatuak eskaintzen ditu egunero, zentroko bost pieza nabarmenenak erakusteko

*Praktikak egiten ari diren Historiako ikasleek gidatzen dituzte bisitak astelehenetik igandera, 11:00etan eta 12:00etan*

Miércoles, 13 de agosto de 2014

Ondarea hedatzea helburu, Nafarroako Museoak doako bisita gidatuak eskaintzen ditu udan zentroko piezarik nabarmenenak ikusteko, astelehenetik igandera eta doan.

Urtarriletik maiatzera, igandeetan egiten ziren Nafarroako Museo bost pieza berezienak ikusteko bisitak, baina, udan, egunero egiten ari dira, Nafarroako Unibertsitateko Historiako ikasleen laguntzarekin; praktikak egiten ari dira bisitariak gidatuz.

Doakoa eta guztiei zuzendurikoa da. Bi erakustaldi egiten dira egunean, bata 11:00etan eta bestea 12:00etan.

Sarrera doakoa da eta ez da behar izena ematerik. Interesa dutenak besterik gabe joan daitezke museora, bisita bakoitza hasi baino minutu batzuk lehenago.

Hirurogei minutukoak dira eta honako hauek ikusteko aukera dago: erromatarren garaiko mosaiko bat, Iruñeko katedraleko kapitela erromanikoak, Leireko kutxatila islamikoa, museoko horma-irudi gotiko bikainak eta San Adriángo markesaren erretratua.



Bisitan, erromatarren garaiko mosaiko bat erakusten